MARKA ETA ERRONKA

EUSKARA ETA KIROLA BAT EGINIK

UNA MARCA Y UN RETO

EL EUSKERA Y EL DEPORTE, UNIDOS

EUSKARABA
ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Araba da erronka
El reto es Álava

AURKIBIDEA | ÍNDICE

ZERGATIK EUSKARA ETA KIROLA 3
¿POR QUÉ EL EUSKERA Y EL DEPORTE? 3

EUSKARA PLANAK EGITEKO HIRU GAKO: BIHOTZA, BURUA, ESKUA 9
TRES CLAVES PARA ELABORAR LOS PLANES EN EUSKERA: CORAZÓN, CABEZA, MANO 9

1. AUTODIAGNOSTIKOA | AUTODIAGNÓSTICO 15

2. NONDIK HASI? | ¿POR DÓNDE EMPEZAR? 19

Sarrera | Introducción 19

1 Hizkuntza irizpideak | Criterios lingüísticos 19

2 Hizkuntza paisaia | Paisaje lingüísticos 20

3 Ezagutza | Conocimiento 21

4 Erabilera | Uso 24

Barne harremanak | Relaciones internas 24

4.1. Idatzizkoak | Por escrito 24

4.2. Ahozkoak | Orales 24

Kanpo harremanak | Relaciones externas 28

4.3. Idatzizkoak | Por escrito 28

4.4. Ahozkoak | Orales 29

3. ADIBIDE KASUA | UN PEQUEÑO EJEMPLO 33

ZERGATIK EUSKARA ETA KIROLA?

Ez zaizue inoiz gertatu? Ez dizuete inoiz galdetu? Zergatik elkartu behar dira euskara eta kirola? Guk kirola lantzen dugu. Kirola da gure lana. Zergatik behar dugu euskara ere landu?

Guk geuk hiru arrazoi aipatuko genituzke...

a) ... gure publikoa aldatzen ari da, eta urratsak ematen ez ditugun neurrian, arrakala bat sortuko dugu kaleko eta klubetako egoeren artean.

b) ... gure papera funtsezkoa da euskararen erabilera indartzeko. Guk badugu zer esan eta badugu zer egin... Erantzukizunez jokatu behar dugu.

c) ... izaera publikoa dugun neurrian edo finantziazio publikoa jasotzen dugun neurrian, betekizun batzuk ditugu.

Banan-banan azalduta:

A) EGOERA ALDATZEN ARI DA. GU EZIN GARA ATZEAN GERATU

Datu gutxi batzuk:

- 2016ko zentsuko datuen arabera, 5 urte edo gehiagoko 304.652 ara-

¿POR QUÉ EL EUSKERA Y EL DEPORTE?

¿No os ha pasado nunca? ¿Nunca os lo han preguntado? ¿Por qué juntar el euskera y el deporte? Nosotros está claro, trabajamos el deporte. Nuestra tarea es el deporte. ¿Por qué tenemos que trabajar también el euskera?

Nos parece importante mencionar tres razones:

a) ... nuestro público está cambiando y, en la medida en que no demos pasos, se abrirá una brecha entre la realidad de la calle y la de los clubes.

b) ... nuestro papel es esencial para fortalecer el uso del euskera. Tenemos qué hacer y qué decir... Hemos de actuar responsablemente.

c) ... en la medida en que tenemos carácter público o recibimos financiación pública, tenemos unas obligaciones.

Explicadas una por una:

A) LA SITUACIÓN ESTÁ CAMBIANDO. NO PODEMOS QUEDARNOS ATRÁS

Unos pocos datos:

- Según los datos del censo de 2016, de 34.652 alaveses de 5 años o

barretatik 83.556 euskaldun osoak dira (% 27,4)

- Euskara ulertzen duten pertsonak gehituz gero, portzentajea %48,2ra iristen da.

- Bilakaerari dagokionez, lurralde guztietan egin dute gora euskaldunek, baina hazkunderik handiena Arabak izan du. Araban biztanleriaren % 4 zen euskalduna duela 35 urte. Hortaz, 23 puntuko hazkundea izan du.

- Araban 5-14 urte bitartekoko ume eta gaztetxoen hiru laurden baino gehiago euskaldunak dira gaur egun: % 76,67. Hortaz, oso gazteak dira arabar euskaldun gehienak. Ia-euskaldunak batzen baditugu, %96,7 dira euskara ulertzen dutenak.

- 15-24 urte bitartekoen artean 2 heren (% 65,9) euskaldunak dira. %81,1k euskara ulertzen du.

- Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, Arabako 16 urtetik gorako biztanleen % 53,4 euskararen erabilera sustatzearen alde dago.

B) KIROLA LEHENTASUNEZKOA DA

más, 83.556 son vascohablantes completos (27,4%)

- Si se suman las personas que entienden el euskera, la cifra llega al 48,2%

- En cuanto a la evolución, las personas vascohablantes han aumentado en todos los territorios, pero el mayor crecimiento se ha dado en Álava. En Álava, era vascohablante el 4% de la población hace 35 años. Así pues, ha habido un crecimiento de 23 puntos.

- Hoy día, más de tres cuartas partes de las personas de 5 a 14 años en Álava hablan euskera: 76,67%. Así pues, la mayoría de los vascohablantes alaveses son muy jóvenes. Si sumamos los cuasi-vascohablantes, 96,7% entienden el euskera

- Entre los de 15 a 24 años, son vascohablantes un tercio, 65,9%. Entienden el euskera 81,1%.

- Según la Encuesta Sociolingüística, 53,4% de la población alavesa de más de 16 años está a favor de fomentar el uso del euskera.

B) KIROLA LEHENTASUNEZKOA DA

Según la Viceconsejería de Política Lingüística (HPS), "es necesario es-

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arabera (HPS), "beharrezkoa da kirol, kultura eta aisialdirako hizkuntza-plangintza sendoak ezartzea, eremu horiek oso garrantzitsuak baitira nerabe eta gazteen bizitzan (bai objektiboki —bertan ematen dituzten ordu kopuruagatik—, bai subjektiboki —euren izaeran duten pisuagatik—). Kirola eta aisialdia funtsezko espazioak dira haur eta gaztetxoen sozializazioan, hainbat harreman berri hemen sortzen direlako.

Horiek horrela, HPSren ustez, lehentasunezkoa da kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea. Ildo horretatik, hainbat ekintza proposatu ditu horretarako, besteak beste:

- Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz lurraldeetako federazioetako jarduna euskalduntzeko plangintza egitea.

- Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetza protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, prestatzaile, arbitro eta buruzagien hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro.

tablecer planes lingüísticos sólidos para el deporte, la cultura y el ocio, ya que son aspectos muy importantes en la vida de adolescentes y jóvenes, tanto objetivamente –por el número de horas que les dedican– como subjetivamente –por el peso que tienen en su forma de ser–. El deporte y el ocio son espacios esenciales en la socialización de niños y niñas y adolescentes, porque es en ellos donde surgen muchas nuevas relaciones.

Así pues, a juicio de la HPS, es prioritario consolidar la presencia y el uso del euskera en las actividades deportivas. En ese sentido, propone para ello diversas acciones, tales como:

- Planificar la euskaldunización de la actividad de las federaciones vascas y de las territoriales.

- Impulsar protocolos de colaboración con los colectivos que actúan en el área deportiva en los pueblos o ciudades, para organizar la formación lingüística de entrenadores, monitorado, profesorado, preparadores, árbitros y dirigentes y garantizar en todo momento la presencia del euskera en las actividades deportivas.

- Euskarazko materialaren sorkuntza eta hedapena sustatzea

- Entrenatzaileak trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez-ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea.

- Kirol eta hizkuntza normalizazio eragileen arteko komunikazioa, artikulazioa eta koordinazioa hobetzea, batez ere eskola kirolean eta kirol federatuan.

C) BETEKIZUN ETA ARDURA BATZUK DITUGU

Dagoeneko 1998an, Euskadiko kirolaren legeak hizkuntza normalizazioa kirol arloan landu beharra adierazi zuen (14/1998 legea, ekainaren 11koa, Euskadiko kirolarena):

Kirol-federazioek beren jardunean euskararen erabilera normaltzeko egokiak diren neurriak hartuko dituzte. Bereziki, katalogoetan, prometan, iragarpen-hormirudietan eta beren kirol jardueretan eta lehiaketetan erabiltzen duten gainontzeko irudizko edo entzutezko materialean bultzatuko dute euskararen erabilera.

Euskadiko Kirol Federazioak arautzen dituen 16/2006 dekretuak ere titulu oso bat du Euskadiko kirol federazioen baitako hizkuntza normalizazioari buruz (16/2006 dekretuak, urtarrilaren 31koa, Euskadiko Kirol Federazioena). Bertan pixkanaka-pixkanaka euskara ohiko komunikazio tresna bihurtu beharra arautzen du, betiere, kirol federazioetan dagoen egoera soziolinguistikoa abiapuntu hartuta. Hortaz, federazioetan euskara normalizatzeko planak egitea proposatzen du, eta derrigorrez bete behar diren gutxieneko batzuk ezarri: zirkularrak, ziurtagiriak, estatutuak, lizentziak eta kartelak, gutxienez, bi hizkuntza ofizialetan egon beharra, alegia.

Dekretuak ez die klub eta taldeei erreferentzia egiten, baina klubek ere, Arabako Foru Aldundiaren edota Gasteizko Udalaren diru-laguntza duten neurrian, badute hainbat betekizun, diruz lagundutako jarduerei dagokienez:

"Bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dira, gaztelania eta euskara, diru-laguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko lantzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, diru-laguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan"

- Promover la creación y difusión de material en euskera.

- Organizar cursos de capacitación de entrenadores y entrenadoras para que tengan sus titulos oficiales y no oficiales.

- Mejorar la comunicación, articulación y coordinación entre agentes deportivos y de normalización lingüística, sobre todo en deporte escolar y federado.

C) TENEMOS OBLIGACIONES Y RESPONSABILIDADES

Ya en 1998, la Ley vasca del deporte (Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco) señaló la necesidad de trabajar la normalización lingüística en el ámbito del deporte:

Las federaciones deportivas adoptarán las medidas oportunas para la normalización del uso del euskera en el desarrollo de sus actividades. En especial, promoverán el uso del euskera en los catálogos, programas, carteles anunciadores y demás material gráfico o sonoro que utilicen en sus actividades y competiciones deportivas.

También el Decreto 16/2006, que regula las federaciones deportivas del País Vasco, dedica todo un título a la normalización lingüística en el seno de las federaciones deportivas (Decreto 16/2006, de 31 de enero, de las Federaciones Deportivas del País Vasco). El mismo regula la obligación de hacer paulatinamente del euskera lengua habitual de comunicación, partiendo siempre de la situación sociolingüística existente en las federaciones deportivas. Así, propone elaborar planes de normalización del euskera en las federaciones y establecer unos mínimos de obligado cumplimiento: circulares, certificados, estatutos, licencias y carteles, por lo menos, han de estar en las dos lenguas oficiales.

El decreto no hace referencia a los clubes y equipos, pero también los clubes, en la medida en que reciben ayuda económica de la Diputación o del Ayuntamiento de Vitoria, tienen diversas obligaciones, en lo que respecta a las actividades subvencionadas:

"Se deberán utilizar ambas lenguas oficiales, euskera y castellano, en los carteles, textos y documentos que se elaboren para publicitar el programa o la actividad subvencionados. Asimismo, los actos públicos promocionales de la actividad subvencionada también deberán ser bilingües y se deberá usar el euskera y el castellano, en este orden"

EUSKARA PLANAK EGITEKO HIRU GAKO: BIHOTZA, BURUA, ESKUA

BIHOTZA

Kirol arloko entitateetan euskararen egoera zein zen ikusteko azterketarik egin dugunean, askotariko egoerak ikusi ditugu: euskara normalizatu samar zituzten elkarteak, lehen-lehen pausuak ematen ari zirenak, eta oraindik ere urrun zeudenak.

Aldea zein zen? Ez kirol mota, ez elkartearen tamaina, adina beharbada bai... Aldea zen batez ere euskararen aldetik egoera aurreratua zuten elkarteetan... euskararekin kezka zuen jendea bazegoela: batzuetan zuzendaritzako kide bat, beste batzuetan irakasle bat, begirale bat... edo talde osoa. Batzuk euskaldunak ziren, batzuk ez, beste batzuk moldatzen ziren... baina euskararen sustatzaileak ziren pertsonak zeuden elkarte horietan. Horri "agentzia" edo "eragiletza" deitu izan zaio.

BURUA

Euskararen sektorean oso profesional onak daude, eskarmentu handia dutenak, baina funtsean, euskara-

TRES CLAVES PARA ELABORAR LOS PLANES EN EUSKERA: CORAZÓN, CABEZA, MANO

CORAZÓN

En los estudios que hemos hecho para conocer la situación del euskera en las entidades deportivas, hemos visto situaciones muy diversas: asociaciones en que el euskera estaba bastante normalizado, otras que estaban dando los primeros pasos, y otras que aún estaban lejos.

¿Cuál era la diferencia? Ni la modalidad deportiva, ni el tamaño de la entidad, quizá la edad... La diferencia era sobre todo que en las asociaciones, clubes, federaciones etc. avanzadas en cuanto al euskera había gente preocupada por el euskera: en unas, una persona de la dirección, en otras una profesora, un monitor... o todo el grupo. Unos hablaban euskera, otras no, otros se defendían... pero había personas que eran impulsoras del euskera en esas entidades. A eso se le viene llamando "agencia".

CABEZA

En el sector del euskera hay mucha profesionalidad, con gran experiencia, pero un plan de euskera, esen-

plana gogoeta-ariketa besterik ez da: non gauden eta non egon nahi dugun pentsatzea. Euskara planak gauzak sistematizatzeko modu bat dira.

Beraz, euskara-planak gure entitatean irudi korporatiboa, barne komunikazioak eta kanpo komunikazioak nola ditugun ikustea da:

- Nola ditugun kartelak logoa, iragarkiak, orria, webgunea, sare sozialak...
- Bilerak nola egiten ditugun, entrenatzaileekin nola hitz egiten dugun, entrenatzaileen artean nola hitz egiten duten.
- Entrenamenduak zein hizkuntzatan eskaintzen ditugun, entrenatzaileen ezagutza kontuan hartzen dugun,
- Posta elektronikoa, gutunak, whatsapp-ak kirolariekin, familiekin, gurasoekin... zein hizkuntzatan egiten ditugun.

Hiru arlo horiez gain, aztertu behar dugu hori guztia zein puntutan dugun sistematizatua. Beti berdin egiten dugu, edo etengabe inprobisatu egiten dugu? Agian hor dugu hutsunea... Falta zaigu erabaki batzuk hartzea, eta sistematizatzea.

cialmente, no es más que un ejercicio de reflexión: pensar dónde estamos y dónde queremos estar. Los planes de euskera son un modo de sistematizar las cosas.

Así pues, el plan de euskera consiste en ver cómo son la imagen corporativa, las comunicaciones internas y las externas en nuestra entidad:

- Cómo son los carteles, el logo, los anuncios, las hojas... la página web, las redes sociales.
- Cómo hacemos las reuniones, cómo hablamos con el grupo de cómo hablan entre ellos y ellas los entrenadores.
- En qué lengua ofrecemos los entrenamientos, tenemos o no en cuenta el conocimiento del cuerpo técnico...
- En qué lengua se hace el correo electrónico, las cartas, los whatsapps con los deportistas, las familias, los padres y madres...

Además de esas tres áreas, debemos estudiar en qué punto tenemos sistematizado todo esto. ¿Lo hacemos siempre igual, o improvisamos continuamente? Quizá ahí esté el vacío... Nos falta tomar algunas decisiones, y sistematizarlas.

ESKUA

Autodiagnostikotik ekintza-planera igarotzea da kontua. Geure buruari galdetzea: Zertan nahi dugu hobetu? Zein da gure helburua? Zer aldatu nahi dugu? Zer egin nahi dugu? Nork lagunduko digu?

euskaraba.eus webgunean atal bat egokitu dugu, behar dituzun baliabide guztiekin. Inguru birtualean egin nahi izan dugu, etengabe eguneratuak izateko.

Han aurkituko dituzue:

- Egin ditugun jardunaldietan erabili ditugun materialak, memoriak, bideoak...
- Euskara plan bat zer den hobeto ulertzeko materiala: bideoak, ereduak, kirol entitate baten adibide praktikoak...
- Arabako Foru Aldundiak eta Arabako udalek euskararen erabilera indartzeko eskaintzen dituzten diru-laguntzak.
- Euskaltegien eta euskara ikasteko diru-laguntzen berri..
- Web orriak euskaraz jartzeko laguntzak.

MANO

Se trata de pasar del autodiagnóstico al plan de acción. Preguntarnos: ¿Qué queremos mejorar? ¿Cuál es nuestro objetivo? ¿Qué queremos cambiar? ¿Qué queremos hacer? ¿Quién nos va a ayudar?

En **euskaraba.eus** hemos adaptado una sección, con todos los recursos que necesitas. Hemos querido hacerlo en el entorno virtual, para estar actualizados continuamente.

Allí encontraréis:

- Los materiales, memorias, vídeos... que hemos empleado en las jornadas realizadas.
- Material para entender mejor qué es un plan de euskera: un vídeo, modelos, ejemplos prácticos de una entidad deportiva.
- Las ayudas económicas que ofrecen la Diputación Foral de Álava y los ayuntamientos alaveses para reforzar el uso del euskera.
- Información de euskaltegis y ayudas económicas para aprender euskera.
- Ayudas para poner en euskera las páginas web.

- Entrenatzaileak eta begiraleak formatzeko ikastaroen eta materialen berri.
- Entrenatzaileei eta hezitzaileei zuzendutako gidak.
- Kirola euskaraz lantzeko material bilduma: fitxak, eskuliburuak, webguneak...

Hemen:
www.euskaraba.eus /markaetaerronka

Eta hori gutxi balitz, liburuxka honetan 3 tresna eskaintzen dizuegu. 3 aplikazio praktiko dira, azken urteotan EMUN kooperatibarekin batera landu ditugunak:

- Autodiagnostikoa egiteko eredu bat
- Lehen urratsak emateko protokolo bat.
- Hizkuntza irizpideak zer diren ikusteko eredu erreal bat, Araban kirol elkarte batek landutakoa.

Hau guztia lagungarria izatea espero dugu.

- Información de cursos y material para formar el cuerpo técnico.
- Guías dirigidas al cuerpo técnico.
- Una colección de material para practicar deporte en euskera: fichas, manuales, webs...

Aquí:
www.euskaraba.eus /markaetaerronka

Por si fuera poco, en este folleto ofrecemos tres instrumentos. Son tres aplicaciones prácticas que hemos elaborado en los últimos años con la cooperativa EMUN:

- Un modelo para autodiagnóstico
- Un protocolo para los primeros pasos.
- Un modelo real para ver qué son los criterios lingüísticos, elaborado en Álava por una asociación deportiva.

Esperamos que todo esto sea de ayuda.

AUTODIAGNOSTIKOA

Erraza da autodiagnostiko bat egitea. Zeuen buruari hainbat galdera egitea da. Lagundu ahal dizuegu, baina lehenago saia zaitezkete zuen kabuz lehen hurbilketa bat egiten.

AUTODIAGNOSTIKOA

A. Zenbat bazkide duzue? Ba al dakizue, gutxi gorabehera zenbat diren euskaldun?

B. Euskara kontuez zein arduratzen da? Nori eskatzen diozue aholkua edo laguntza? Zein kargu du?

C. Federazioan edo klubean zenbat euskaldun zarete? Ba al dituzue datu horiek? (Datu zehatzik ez baduzue, saia zaitezte estimazio bat egiten).

AUTODIAGNÓSTICO

Es fácil hacer el autodiagnóstico. Consiste en hacerse varias preguntas. Podemos ayudaros, pero antes podéis intentar hacer una primera aproximación por vuestra cuenta.

AUTODIAGNÓSTICO

A. ¿Cuántos socios y socias tenéis? ¿Sabéis, más o menos, cuántas personas hablan euskera?

B. ¿Quién se ocupa de los asuntos de euskera? ¿A quién pedís consejo o ayuda? ¿Qué cargo tiene?

C. ¿Cuántas personas vascohablantes hay en la federación o club? ¿Tenéis esos datos? (Si no tenéis datos exactos, podéis intentar hacer una estimación).

	Euskaldunak (Ondo/erraz moldatzen dira) - Vascohablantes (Hablan bien o con facilidad)	Ulertzen dute - Saben algo	Ez dakite, edo oso gutxi - No saben, o muy poco
Zuzendaritzan | En la dirección			
Administrazioan | En la administración			
Entrenatzaileen edota begiraleen artean Cuerpo técnico			
Kirolariak | Deportistas			
Guztira | En total			

D. Zein da euskararen presentzia arlo hauetan:

1. Dena edo ia dena gaztelaniaz.
2. Gehiena gaztelaniaz, zertxobait euskaraz edo ele bietan ere bai.
3. Erdia euskaraz edo ele bietan.
4. Erdia baino gehiago euskaraz edo ele bietan.
5. Dena edo ia dena euskaraz edo ele bietan.
6. Ez dagokigu.

D. Qué presencia tiene el euskera en estas áreas:

1. Todo o casi todo en castellano
2. Mayormente en castellano, algo en euskera o en ambas lenguas
3. La mitad en euskera o en ambas lenguas
4. Más de la mitad en euskera o en ambas lenguas
5. Todo o casi todo en euskera o en ambas lenguas
6. No nos incumbe

EUSKARAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA
USO Y MANEJO DEL EUSKERA

1. KANPOKO PROIEKZIOA | PROYECCIÓN EXTERNA

1. Hizkuntza paisaia eta irudia | Paisaje lingüístico e imagen	
1.1. Errotulazioa | Rotulación	1 2 3 4 5 6
1.2. Paper gauzak (gutun-azalak, idazpuruak, zozketarako boletoak...) Papelería (sobres, membretes, boletos de sorteos...)	1 2 3 4 5 6
1.3. Argitalpenak, iragarkiak, kanpainak, prentsa oharrak Publicaciones, anuncios, campañas, notas de prensa	1 2 3 4 5 6
1.4. Kirol saioak: harrera, esatariak... | Actos deportivos: recepción, locutores...	1 2 3 4 5 6
1.5. Kirol saioak: kartelak, eskuorriak | Actos deportivos: carteles, hojas volantes	1 2 3 4 5 6
1.6. Bestelako jendaurreko ekitaldiak (prentsaurrekoak...) Actos públicos de otro tipo (ruedas de prensa...	1 2 3 4 5 6
1.7. Webgunea eta sare sozialak | Sitio web y redes sociales	1 2 3 4 5 6

2. Kirolariak eta gurasoak (bezeroak, zerbitzua) | Deportistas y padres (clientes, servicio)	
2.1. Komunikazio idatzia: jardunaldien deialdiak e-postaz, oharrak, whatsapp... Comunicación escrita: convocatorias de jornadas por e-mail, notas, whatsapps...	1 2 3 4 5 6
2.2. Izena emateko fitxak | Fichas de inscripción	1 2 3 4 5 6
2.3. Lehen hitza (telefonoz zein aurrez aurre) | Primera palabra (por teléfono o cara a cara)	1 2 3 4 5 6
2.4. Ahozko harremana (hizkera teknikoa) | Relación oral (lenguaje técnico)	1 2 3 4 5 6
2.5. Ahozko harremana entrenamenduetan | Relación oral en los entrenamientos	1 2 3 4 5 6
2.6. Bilerak kirolariekin eta gurasoekin | Reuniones con deportistas y padres	1 2 3 4 5 6

1. BARNEKO ERABILERA - LAN HIZKUNTZA | USO INTERNO - LENGUA DE TRABAJO

3. Barne komunikazioa eta lan-tresnak | Comunicación interna e instrumentos de trabajo	
3.1. Entrenatzaileen eta begiraleen arteko hizkuntza Lengua empleada entre entrenadores y monitores	1 2 3 4 5 6
3.2. Federazioko barne idatziak (aginduak, zirkularrak, oharrak...) Escritos internos de la federación (órdenes, circulares, notas...)	1 2 3 4 5 6
3.3. Bilera deiak, bileretako gai-zerrenda, bilera-aktak Convocatorias de reuniones, órdenes del día, actas	1 2 3 4 5 6
3.4. Estatutuak edo arautegia | Estatutos o reglamento	1 2 3 4 5 6
3.5. Proiektuak, memoriak... | Proyectos, memorias...	1 2 3 4 5 6
3.6. Zuzendaritza batzordeko bilerak | Reuniones de la junta directiva	1 2 3 4 5 6
3.7. Bileran entrenatzaileekin eta begiraleekin En reunión con entrenadores y monitores	1 2 3 4 5 6
4. Kanpo harremanak | Relaciones externas	
4.1. Udalarekin ahoz | Con el ayuntamiento, oralmente	1 2 3 4 5 6
4.2. Udalarekin idatziz | Con el ayuntamiento, por escrito	1 2 3 4 5 6
4.3. Foru Aldundiarekin ahoz | Con la diputación, oralmente	1 2 3 4 5 6
4.4. Foru Aldundiarekin idatziz | Con la diputación, por escrito	1 2 3 4 5 6
4.5. Eusko Jaurlaritzarekin ahoz | Con el Gobierno Vasco, oralmente	1 2 3 4 5 6
4.6. Eusko Jaurlaritzarekin idatziz | Con el Gobierno Vasco, por escrito	1 2 3 4 5 6
4.7. Beste federazio edo klubekin ahoz | Con otras federaciones o clubes, oralmente	1 2 3 4 5 6
4.8. Beste federazio edo klubekin idatziz | Con otras federaciones o clubes, por escrito	1 2 3 4 5 6
4.9. Hedabideekin | Con los medios	1 2 3 4 5 6
5. Pertsonen kudeaketa | Gestión de personal	
5.1. Entrenatzaile edo begirale berriak bilatzerakoan, euskara eskatzen da? Al buscar entrenadores o monitores, ¿se exige saber euskera?	Bai / Ez Si/| No
6. Funtzionamendua - Kudeaketa Sistema | Funcionamiento- Sistema de gestión	
6.1. Hizkuntza irizpideak erabakita dituzue? ¿Tenéis establecidos los criterios lingüísticos?	Bai / Ez | Si / No
6.2. Betetzen dira? | ¿Se cumplen?	Bai / Ez | Si / No
6.3. Komunikatzen dira entitate barruan? | ¿Se comunican dentro de la entidad?	Bai / Ez | Si / No



NONDIK HASI?

SARRERA

Protokolo honek **Euskararen erabilerarako Hizkuntza Irizpideak** betetzen lagunduko dizue. Ondoren proposatzen diren jarduerei jarraituz, jakingo duzu hartutako neurriak nola bete. Horretara iristen laguntzeko gida da honakoa:

- Euskarari dagokionez, jarraibide orokor batzuk izateko.
- Euskararen erabileran bide komun batean denok aurrera egiteko.
- Oinarrizko argibideak jasotzen dira bertan, guztientzat baliagarriak.
- Euskara ere kudeatu egin behar da gainerako gaiak bezalaxe.
- Ezinbestekoa da euskarak ere bere egitura eta baliabideak izatea.

1. HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

Euskarak elkarte/erakunde/enpresan izan behar duen lekua jasotzen dute hizkuntza irizpideek. Hizkuntza irizpideak betetzeko, komenigarria da honako pauso hauek ematea:

- Hizkuntza irizpideak elkarte/erakunde/enpresan onartu.

¿POR DÓNDE EMPEZAR?

INTRODUCCIÓN

Este protocolo os ayudará a cumplir los **Criterios lingüísticos para el uso del euskera**. Siguiendo las actividades que a continuación os proponemos, sabréis cómo y de qué modo cumplir las medidas adoptadas. Lo que sigue es una guía para ayudar a llegar a ello:

- Para tener unas directrices generales en cuanto al euskera.
- Para avanzar todos por un mismo camino en el uso del euskera.
- En él se recogen instrucciones básicas, útiles para todos.
- También el euskera debe gestionarse, como los demás asuntos.
- Es imprescindible que el euskera tenga sus estructuras y recursos.

1. CRITERIOS LINGÜÍSTICOS

Los criterios lingüísticos recogen el lugar que el euskera debe tener en la sociedad/entidad/empresa. Conviene dar estos pasos para cumplir los criterios lingüísticos.

- Aprobar los criterios lingüísticos en la sociedad/entidad/empresa.

- Irizpide (neurri) bakoitza betetzeko elkarte/erakunde/enpresako arduraduna izendatu.

- Elkarte/erakunde/enpresako kideei jakinarazi (komunikazioa ziurtatu): bileren bidez, eskuorriak prestatuz, norberaren ardura diren irizpideak eskura jarriz...

- Irizpideak betetzeko epeak jarri. Egun batetik bestera ez dira gauza guztiak aldatuko, errazenetik zailenetara aldatzen joan. Horretarako kronograma bat prestatu.

- Jarraipena egin (betetzearen/ez betetzearen arrazoiak jaso eta arduradunari jakinarazi).

2. HIZKUNTZA PAISAIA

Elkarte/erakunde/enpresako hizkuntza paisaia euskaraz ere jarri nahi dugu. Zer eta nola egin?

a) Hizkuntza paisaiaren arduraduna identifikatu. Nork aldatzen ditu errotuluak? Noiz aldatu behar dira?

b) Erdara hutsean dauzkazuen elementuen zerrenda egin.

- Nombrar una persona responsable en la sociedad/entidad/empresa para cumplir cada criterio/medida.

- Comunicarlos a las personas que forman parte de la sociedad/entidad.... (asegurar la comunicación): mediante reuniones, hojas volantes, poner al alcance de cada cual los criterios que le atañen...

- Fijar plazos para cumplir los criterios. No cambiará todo de un día para otro, ir cambiando de lo más fácil a lo más difícil. Elaborar un cronograma para ello.

- Hacer seguimiento (recoger los motivos de cumplimiento/incumplimiento y comunicarlos a la persona responsable).

2. PAISAJE LINGÜÍSTICO

Queremos poner también en euskera el paisaje lingüístico de la sociedad/entidad/empresa. ¿Qué hacer, y cómo?

a) Identificar a la responsable del paisaje lingüístico. ¿Quién cambia los rótulos? ¿Cuándo hay que cambiarlos?

b) Hacer una lista de los elementos que están solo en castellano.

c) Euskaraz ere jartzeko lehentasunak zerrendatu:

1. Kanpora begirako elementuak (errotuluak, kamisetak, materiala...)
2. Barne elementuak, elkarte/erakunde/enpresaren eraikuntza-bulegoetan daudenak.
3. Webgunea

d) Euskaraz jartzeko baliabideak aztertu:

1. Elkartean bertan itzulpenak egin.
2. Euskara Zerbitzuari laguntza eskatu.
3. Beste aukera batzuk aztertu.

3. EZAGUTZA

Elkarte/erakunde/enpresako kideen (arduradunak, begiraleak, teknikariak...) euskara maila hobetu behar dugu. Zer egin?

a) Elkarte/erakunde/enpresako lanak egiteko beharko luketen maila definitu.

c) Listar las prioridades para poner en bilingüe:

1. Elementos de cara al exterior (rótulos, camisetas, material...)
2. Elementos internos existentes en locales u oficinas de la sociedad/entidad/empresa.
3. Sitio web

d) Estudiar los recursos para poner en euskera:

1. Hacer las traducciones en la misma asociación.
2. Pedir ayuda al Servicio de Euskera.
3. Estudiar otras opciones.

3. CONOCIMIENTO

Tenemos que mejorar el nivel de euskera de las personas que pertenecemos a la sociedad/entidad/empresa (encargados, monitores, técnicos...). ¿Qué hacer?

a) Definir el nivel que necesitarían para realizar las tareas de la asociación/entidad/empresa.

- Jendaurreko lanpostuak, begiraleak, administrariak...
- Ahozkoan, idatzizkoan...

b) Lanpostu berriak sortzen direnean maila badutela ziurtatu.

- Beharrezkoak diren ziurtagiriak eskatu, euskara proba bat egin...

c) Dagoeneko elkarte/erakunde/enpresako pertsona bakoitzak daukan maila definitu. **Kontuan izan hizkuntza erabiltzen ez bada, ezagutza ere galdu egiten dela.**

d) Bakoitzaren lana euskaraz burutzeko behar duen formazioa zehaztu.

e) Euskara ikasteko baliabideak aztertu eta eskaini.

f) Elkarte/erakunde/enpresako kideei euskara ikasteko baliabideen berri eman eta euskara ikastera animatu (ikastaroen berri ematen duten kanpainak elkartean jarri: matrikulazio kanpaina, mintzalaguna...).

g) Euskara maila hobetzeko baliabideak eskura jarri: hiztegiak, terminologia, txantiloiak, lanarekin lotutako materiala...

- Puestos de relación con el público, cuerpo técnico, personal administrativo...
- Oralmente, por escrito...

b) Asegurar que tienen el nivel al crear nuevos puestos.

- Requerir los certificados que sean necesarios, hacer una prueba de euskera...

c) Definir el nivel que tiene ya cada persona de la asociación/entidad/empresa. **Tener en cuenta que si una lengua no se usa, se pierde el dominio de ella.**

d) Precisar la formación que cada persona necesita para realizar su trabajo.

e) Estudiar y ofrecer recursos para aprender euskera.

f) Informar a las personas que forman parte de la sociedad/entidad/empresa de los recursos para aprender euskera y animarlos a hacerlo (hacer en la asociación campañas informativas de los cursos: campaña de matriculación, Mintzalaguna...).

g) Poner al alcance recursos para mejorar el nivel de euskera: diccionarios, terminología, plantilla, material relacionado con el trabajo...

h) Ezagutzaren arabera ikastarotxoak antolatu. Euskara maila hobetzeko dauden aukera guztiak probestu: bestelako ikastaroak euskaraz ere eskaintzen badira horiek aukeratu (horrelakoetan ikastaro horietako gaian sakontzeaz gain, euskara maila hobetzeko aukera izango duzue).

4. ERABILERA

BARNE HARREMANAK

4.1. IDATZIZKOAK

Dokumentazioak euskaraz ere egon behar du. Zer egin?

a) Arduraduna izendatu.

b) Dokumentuen zerrenda egin.

c) Euskaraz jartzeko lehentasunak jarri.

d) Itzuli.

e) Itzuli ezin direnak **Euskara Zerbitzura bidali (ikus *Itzulpen Zerbitzua eskatzeko Baldintzak* dokumentua)** (aldez aurretik Euskara Zerbitzuari itzultzeko dauden dokumentuen berri eman eta itzulpen kopurua adostu).

h) Organizar cursillos según el nivel de conocimiento. Aprovechar todas las posibilidades que haya para mejorar el nivel de euskera: si se ofrecen cursos de otro tipo también en euskera, elegirlos (en este caso, además de profundizar en la materia de esos cursos, tendrán ocasión de mejorar su nivel de euskera).

4. USO

RELACIONES INTERNAS

4.1. POR ESCRITO

La documentación debe estar también en euskera. ¿Qué hacer?

a) Nombrar un responsable

b) Hacer la lista de documentos

c) Fijar prioridades para poner en euskera

d) Traducir

e) **Enviar al Servicio de Euskera (ver el documento de Condiciones para solicitar servicio de traducción)** lo que no se pueda traducir (informar previamente al Servicio de Euskera de los documentos que hay para traducir y acordar el volumen de traducción).

f) Txantiloiak prestatu. Prestatzeko baliabiderik ez badago, txantiloiak eskatu Euskara Zerbitzuari.

g) Urtean zehar jarraipena egin (arduraduna izendatu).

4.2. AHOZKOAK

Bazkide/Kideen bilera/batzarretan euskararen erabilera handitu nahi dugu. Zer egin?

a) Bilera mota definitu: batzar orokorrak; elkarte/erakunde/enpresaren barruko bilerak (begirale/teknikarien artekoak, zuzendaritza bilerak, bezero/hartzaileekin egindakoak...); tamaina (hartzaile kopurua, iraupena....).

b) Partaideen euskara ezagutza definitu:

- Hizlariek euskaraz badakite/ez dakite.
- Entzuleek euskaraz badakite/ulertzen dute/ez dakite.

c) Horien partehartzea definitu: dakienak hitz egin behar duen, ez dakienaren parte hartzea zenbatekoa den, entzuleen artean zenbatek ulertzen duen...

f) Preparar plantillas. Si no hay recursos para prepararlas, solicitarlas al Servicio de Euskera.

g) Hacer seguimiento durante el año (nombrar un responsable)

4.2. ORALES

Queremos aumentar el uso del euskera en las reuniones/juntas de socios y socias. ¿Qué hacer?

a) Definir el tipo de reunión: junta general; reuniones internas de la sociedad/entidad/empresa (del cuerpo técnico, reuniones de la dirección, con clientes o personas usuarias...); tamaño (número de personas usuarias, duración...).

b) Definir el conocimiento de euskera de las personas que asisten a las reuniones:

- Los personas que dirigen las reuniones hablan/no hablan euskera.
- Los oyentes hablan/entienden/no saben euskera.

c) Definir su participación: si el que sabe debe hablar o no, qué extensión tiene la intervención del que no sabe, cuántos de los oyentes entienden...

d) Bileretako helburuak definitu: bileretan zenbatekoa izan behar du euskararen erabilerak? Helburua: gutxienez, dakitenen eta ulertzen dutenen proportzioa asistentziaren erdia baldin bada, bileraren euskararen erabilera % 50 izatea.

d) Definir los objetivos de las reuniones: ¿qué extensión debe tener el uso del euskera en las reuniones? Objetivo: si la proporción de las personas que saben y las que entienden es de la mitad de los asistentes, que el uso del euskera en la reunión sea por lo menos del 50%.

e) Bileretako neurriak adostu (zuzendaritzan)

e) Acordar medidas para las reuniones (en la directiva)

Partaideen ezagutza maila - Nivel de conocimiento de los asistentes	Badaki - Habla	Ulertzen du - Entiende	Ez daki - No sabe	Hartutako neurria - Medida adoptada	Betebeharrak / arduradunak - Obligaciones / responsables	Balorazioa: bete da? - Valoración: ¿se ha cumplido?
Hizlaria(k) Oradores				Ahozkoan: Oralmente:	Materiala euskaratu Traducir material	
				Idatzizkoan: Por escrito:		
Partaidea(k) Asistentes				Ahozkoan: Oralmente:		
				Idatzizkoan: Por escrito:		

Kideen artean ahozko harremanetan euskararen erabilera handitu nahi dugu. Zer egin?

f) Zein gunetan eta nola lan egingo den erabaki:

- Taldeka (taldea zer den definitu: zuzendaritzan, begirale/teknikarien artean, bulegoan...).
- Lantaldeka.
- Euskara ikasten ari direnen artean.
- Binaka.
- Harreman sarea kontuan hartuta: lagun taldea.
- Banaka (kasu honetan norbaiti adierazi edo begi-bistan jarri beharko ditu tratuak).
- ...

g) Tratua egin beharraren arrazoiak prestatu langileei aurkezteko.

h) Tratuak egin. Zehaztu beharrekoa:

- Zer egingo dut/dugu euskaraz hemendik aurrera? Euskaraldian eskaintzen diren rolak, adibidez?.
- Noiz?

Queremos aumentar el uso del euskera en las relaciones orales entre las personas que formamos parte de la entidad. ¿Qué hacer?

f) Decidir en qué espacio y cómo se actuará:

- Por grupos (definir qué es un grupo: en la directiva, entre el monitorado, el cuerpo técnico...).
- Por grupos de trabajo.
- Entre quienes están aprendiendo euskera.
- Por parejas.
- Considerando la red de relaciones: la cuadrilla.
- Individualmente (en este caso deberá comunicar a alguien los acuerdos o ponerlos a la vista).
- ...

g) Preparar las razones del acuerdo para su presentación al personal empleado.

h) Hacer acuerdos. A concretar:

- ¿Qué haré/haremos en euskera de aquí en adelante? Los roles que se ofrecen en Euskaraldia, a modo de ejemplo.
- ¿Cuándo?

- Norekin?
- Jarraipena eta balorazioa zehaztu (bi hilabetean behin, urtebeteko iraupena izan behar badu, urte erdian baloratu...).

- ¿Con quién?
- Concretar el seguimiento y la valoración (cada dos meses, si ha de tener duración anual, valorar a la mitad del año...).

KANPO HARREMANAK

4.3. IDATZIZKOAK

Beste entitateekin daukagun harremanetan euskararen erabilera handitu nahi dugu. Zer egin?

a) Beste entitate/elkarteak identifikatu: erakunde pribatuak (banketxeak, beste elkarteak, hornitzaileak, hedabideak....) eta publikoak (udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, federazioak...).

b) Horiekin harremana duten elkarteetako kideak identifikatu eta ardurak hartu (irizpideen araberakoak).

c) Harreman mota identifikatu: euskaraz egin ahal zaio bai/ez.

d) Harremanetarako euskarriak identifikatu: gutunak, eskabide orriak, lizentziak, bazkide txartelak, ziurtagiriak, ordainagiriak... eta euskaraz jarri.

RELACIONES EXTERNAS

4.3. POR ESCRITO

Queremos aumentar el uso del euskera en nuestras relaciones orales con otras entidades. ¿Qué hacer?

a) Identificar las otras entidades/sociedades: entidades privadas (bancos, otras sociedades, proveedores, medios de difusión...) o públicas (Ayuntamiento, Diputación, Gobierno Vasco, federaciones...)

b) Identificar a las personas que forman parte de las sociedades que tienen relación con ellos y asumir responsabilidades (acordes con los criterios).

c) Identificar el tipo de relación: ¿se le puede hablar en euskera? Sí/no.

d) Identificar los soportes de las relaciones: cartas, hojas de solicitud, licencias, tarjetas de socio, certificados, recibos... y ponerlos en euskera.

e) Erakundeetatik jasotzen diren idatziak gaztelaniaz baldin badira euskaraz jasotzeko eskaera bideratu.

4.4. AHOZKOAK

Beste entitateekin daukagun harremanetan euskararen erabilera handitu nahi dugu. Zer egin?

a) Beste entitate/elkarteak identifikatu: erakunde pribatuak (banketxeak, beste elkarteak, hornitzaileak....) eta publikoak (Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, federazioak...).

b) Horiekin harremana duten elkarteetako kideak identifikatu eta ardurak hartu (irizpideen araberakoak).

c) Harreman mota identifikatu: euskaraz egin ahal zaio? bai/ez.

d) Harremanetarako elementuak identifikatu: bilerak, telefonozko harremana...

f) Euskarazko harremana, ahal den neurrian, bideratu: lehenengo hitza euskaraz, ulertzen edo euskaraz hitz egiten duten galdetu...

e) Si los escritos que se reciben de las instituciones vienen en castellano, dirigir una solicitud para recibirlos en euskera.

4.4. ORALES

Queremos aumentar el uso del euskera en nuestras relaciones orales con otras entidades. ¿Qué hacer?

a) Identificar las otras entidades/sociedades: entidades privadas (bancos, otras sociedades, proveedores...) o públicas (Ayuntamiento, Diputación, Gobierno Vasco, federaciones...)

b) Identificar a las personas que forman parte de las sociedades que tienen relación con ellos y asumir responsabilidades (acordes con los criterios).

c) Identificar el tipo de relación: ¿se le puede hablar en euskera? Sí/no.

d) Identificar los elementos de la relación: reuniones, relación por teléfono...

f) Facilitar, en la medida de lo posible, la relación en euskera: dirigirles la primera palabra en euskera, preguntarles si lo hablan o lo entienden...

ARASKI NESKEN SASKIBALOI TALDEA

EUSKARAREN HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

CRITERIOS LINGÜÍSTICOS DEL EUSKERA

1. KANPO IRUDIA-ERROTULAZIOA // IMAGEN EXTERIOR-ROTULACIÓN

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	CRITERIO LINGÜÍSTICO
IDATZIZKOA	ESCRITO
- **Gutxienez euskaraz** idatziko dira: o Poltsak, egutegiak, kamisetak… (materiala) o Idazpurua edo logotipoa o Zigilu nagusia o Inprimakiak o Kartelak, oharrak.. o Bazkide txartelak o Komunikabideetako eta etxeetara bidalitako publizitatea o Webgunea: interfaza eta edukien %30	- Se escribirán **al menos en euskera:** o Bolsas, calendarios, camisetas… (material) o Membrete o logotipo o Sello principal o Impresos o Carteles, notas… o Tarjeta de socia o La publicidad de los medios de comunicación y los envíos a domicilio o Web: interfaz y 30% de contenidos

2. BARNE IRUDIA-ERROTULAZIOA // IMAGEN INTERIOR-ROTULACIÓN

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	CRITERIO LINGÜÍSTICO
IDATZIZKOA	ESCRITO
- **Gutxienez euskaraz** idatziko dira: o Errotuluak o Ohar-taulako idatziak	- Se escribirán **al menos en euskera:** o Rótulos o Documentos escritos del tablón

3. KANPO HARREMANAK // RELACIONES EXTERNAS

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	CRITERIO LINGÜÍSTICO
IDATZIZKOA	ESCRITO
- **Gutxienez euskaraz** idatziko dira: o Erakunde publikoei (udala, aldundia, jaurlaritza…) **zuzendutako idatzietako agurrak** o Prentsarako jakinarazpenak o Erabiltzaileentzako gutunak, oharrak… o Email estandarrak o Gonbidapenak o Babesleentzako proiektua	- Se escribirán **al menos en euskera:** o Saludos de los escritos dirigidos a las entidades públicas (Ayuntamiento, Diputación, Gobierno Vasco…) o Notificaciones de prensa o Comunicaciones para los usuarios. o Email estándar. o Invitaciones o Proyecto para patrocinadores
AHOZKOA	ORAL
- **Gutxienez euskaraz** izango dira: o Erakunde publikoekin (Udala, Aldundia, Jaurlaritza…): ahal denean o Beste elkarteekin (euskaraz izateko ahalegina egingo da)	- **Al menos en euskera**: o Con las entidades públicas (Ayuntamiento, Diputación, Gobierno Vasco…): siempre que se pueda o Con otros clubes (se intentará que sea en euskera)

4. BARNE HARREMANAK // RELACIONES INTERNAS

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	CRITERIO LINGÜÍSTICO
IDATZIZKOA	ESCRITO
- **Gutxienez euskaraz** idatziko dira o Barruko inprimakiak o Proiektu, memoria, aurrekontuak o Denboraldiko egutegia o Bilera deiak, gai zerrendak. o Email orokorrak	- **Se escribirán al menos en euskera**: o Impresos internos o Proyectos, memorias, presupuestos o Calendario de la temporada o Convocatorias de reunión, órdenes del día. o Emails colectivos.
AHOZKOA	ORAL
- **Euskararen presentzia bermatuko da:** o Batzar Orokorrak (sarrera, laburpena….) o Bestelako bilerak - Batzar eta bileretan parte hartzen duten hizlariek eskubidea izango dute interbentzioak eta erantzunak **hautatzen duten hizkuntzan egiteko.** - Kideen artean, harreman ez-formaletan euskara sustatzeko neurriak hartuko dira	- **Se garantizará la presencia del euskera**: o Asambleas Generales (presentación, resumen… o Otras reuniones - En las reuniones, las participantes tendrán derecho a **intervenir en el idioma elegido.** - En las relaciones informales entre los miembros, se tomarán medidas para impulsar el uso del euskera

5. ZERBITZUAK/JARDUERAK // SERVICIOS/ACTIVIDADES

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	CRITERIO LINGÜÍSTICO

IDATZIZKOA
- **Gutxienez euskaraz** idatziko dira:
  o Erabiltzaileentzako edozein idatzi
  o Kartelak, publizitatea…
- Euskara hutsean idatziko dira:
  o Diplomak, sariak…
	ESCRITO
	- Se escribirán **al menos en euskera**:
	  o Cualquier escrito dirigido a usuarios
	  o Carteles, publicidad....
	- Se escribirán solo en euskera:
	  o Diplomas, premios…

AHOZKOA
- **Gutxienez euskaraz** egingo dira:
  o Megafonia
  o Musika, abestiak…
  o Aurkezpenak, agurrak…
  o Udalekuak
  o Erabiltzaileekiko bilerak
	ORAL
	- **Al menos en euskera**:
	  o Megafonía
	  o Música, canciones...
	  o Presentaciones, saludos…
	  o Colonias de verano
	  o Las reuniones con usuarios

6. BESTELAKOAK // OTROS

HIZKUNTZA IRIZPIDEA	CRITERIO LINGÜÍSTICO
- **Begiraleak, dinamizatzaileak, entrenatzaileak**… hartu behar izatekotan, **euskaldunak lehenetsiko** dira. - Araskiren helburua talde bakoitzeko **bi entrenatzaileetako bat, gutxienez, euskalduna** izatea izango da. - Antolatutako jardueretan (udalekuak, txapelketak…) begiraleek euskaraz egingo diete ulertzen duten parte hartzaileei.	- En caso de necesitar **monitoras, dinamizadoras, entrenadoras**…, preferentemente se elegirán **las vascoparlantes.** - Araski tendrá como objetivo que **al menos una de las entrenadoras** del club **sea vascoparlante**. - En las actividades que organizan (campamentos, campeonatos…) los monitores hablarán en euskera con aquellos que lo entiendan.

OHARRAK // NOTAS

……
……
……
……
……

OHARRAK / NOTAS:

"GUTXIENEZ EUSKARAZ": Formula hau erabiltzen dugu "ELE BIETAN" formularen ordez, hautatutakoa derrigorrez ele bietan jartzeko beharrik ez izateko; hau da, elkarte/erakunde/enpresa bakoitzak erabakiko du zer jarri "ele bietan" (euskara&gaztelera) edota "beste hizkuntzetan" (aukera zabalagoa, ez bakarrik gaztelera), eta zer soilik euskaraz, den-dena derrigorrez itzuli behar ez izateko (hala jasoz gero erakundearen Hizkuntza Irizpideek); adibidez: TOKIA-LUGAR; ORDUTEGIA-HORARIO. Hau da, norberaren esku dago zelan jarri sailkatutako atalak edo ekimenak, beharrik izan gabe den-dena itzultzeko.

"AL MENOS EN EUSKERA": Se utiliza esta fórmula en lugar de "en BILINGÜE" para no obligar a que se traduzcan todas y cada una de las opciones seleccionadas; por lo que cada asociación/entidad/empresa decidirá qué formular en "bilingüe" (euskera&castellano) u "otras lenguas" (cualquier lengua, no sólo el castellano) y qué únicamente en euskera, para que no sea obligatorio traducir absolutamente todo (si así lo recogieran los Criterios Lingüísticos de la entidad); ej.: TOKIA-LUGAR; ORDUTEGIA-HORARIO. Es decir, está en manos de la entidad cómo formular cada opción, sin estar obligada a traducirlo todo.

MARKA ETA ERRONKA

EUSKARA ETA KIROLA BAT EGINIK

UNA MARCA Y UN RETO

EL EUSKERA Y EL DEPORTE, UNIDOS

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

A.F.D.A.
Asociación de Federaciones Deportivas de Álava

EUSKARABA
ARABAKO EUSKARA ZERBITZUAK

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Araba da erronka
El reto es Álava